



## [Albisteak](#)

# Albaola, Aste Santuan barrero zabalik

Bizkaie! 2021-03-26 08:35 [Kulturea](#)

Bisitaldietan parte hartzeko, aurretik izena emon behar da.



Saul Hoffmann eta Ioanna Moutosidi, 'Laguna' sandaloa erakusten (argazkia: Mitxel Ezkiaga/Albaola) | [Ikusi handiago](#) | [Argazki originala](#)

Urtarrilean Pasaiaiko [Albaola Itsas Kultur Faktoria](#)ko arduradunek iragarri eban, instalazioak publikoarentzat zarratuko zituela, hainbat arrazoigaitik. Batetik, bertara heltzeko oinezkoen bidea itxi eban, eta, bestetik, pandemiaren eraginak be izan eban zerikusia. Lau egunez bada be, Albaola barrero zabalduko dabela esan dabe orain, Aste Santuko jai egunakaz bat eginda.

Bisiten inguruan galdetzeko dei asko izan dituelako erabagi dabe, salbuespen moduan, Aste Santuan ateak zabaltzea. Apirilean eta maiatzean beste egun batzuetan Albaola edegiteko asmoa be aitatu dabe.

Eguen Santuan, apirilaren 1ean, hasita, domekara arteko lau egunetan bisitatu ahal izango da Albaola, goizez. Horretarako, aurretik erreserba egin behar da, [bisitak@albaola.com](mailto:bisitak@albaola.com) helbide elektronikora idatzita edo 943 39 24 26 telefono zenbakira deituta. Ondoren, konfirmazio mezua bialduko dabe Albaolakoek, bisitarako argibide guztiak emonez.

Oinezkoen bidea oraindino zarratuta dagoanez, bisitariak itsasontziz eroango ditue Albaolara. Zerbitzu hori dobakoa izango da. Behin lantegira helduta, Albaolan egiten dan lan guztiaren inguruko argibideak emongo deutsez bisitariei, eta momentu honetan martxan dagozan proiektuak ikusiko ditue, esate baterako, XVI. mendeko *San Juan* baleontziaren erreplikea.

Ganera, proiektuetako bat ia prest dabe, Itsas Faktoriakoek egunotan jakitera emon dabenez. Atzo, martiak 25, Venezia uriak 1.600 urte bete zituanez, Albaolak omenaldia egin nahi izan deutso nabigazioaren historian horrenbesteko ekarpena egin eban errepublikeari, hango estiloko ontzi baten erreplikea erakutsita.

Albaola eskolako Saul Hoffmannek eta Ioanna Moutosidik sandalo edo sando s'ciopon izeneko ontzi hori gidatzeko teknikea erakutsi dabe, gondolearenaren antzeko teknikea behar da. Sei metro inguruko ontziok ahateak atrapatuko erabilten zituen veneziarrek, sakonera txikiko uretan baina kanal nagusietatik kanpo.

*Laguna* izena ipini deutse Albaolako sandaloari, euskeraz eta venezieraz esangurea dauelako. Euskeraz adiskidetasunari egiten deutso erreferentzia, eta italieraz zein venezieraz, uria inguratzen daben ur gazia da *laguna*, sakonera gitxikoa eta itsaso zabaletik bereizia. Hilebete inguruan, *Laguna* oso-osorik amaituta izatea da aurreikuspena.

---

## BIZKAIE!

Arbidea, 1 (Txurdinaga), 48004 Bilbao  
Erredakzioa: Tel. 94 4162393 - Faxe 94 4150199

[bizkaie@bizkaie.biz](mailto:bizkaie@bizkaie.biz)



[Codesyntaxek](#) garatua